

Londresko komunikatua

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrurantz: mundu globalizatu baten erronkei erantzunez.

I. Hitzaurrea.

1.1 Boloniako Prozesuan parte hartzen duten herrialdeetako Goi-mailako Hezkuntzaren ardura dugun ministroak Londresen bildu gara, 2005ean Bergenen egindako bileraz geroztik egindako aurrerapenak egiaztatzeko.

1.2 Herrialde bat gurera kide berri gisa sar dadin hitzartutako irizpideei jarraikiz, Montenegroko Errepublikari ongietorria egin diogu Boloniako Prozesuan.

1.3 Azken bi urteetan egindako aurrerapenek bultzada handia suposatu dute Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua osatzeko bidean. Europako askotariko kultura-ondare oparoan oinarrituta, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparru bat garatzen ari gara autonomia instituzionalean, askatasun akademikoan, aukera-berdintasunean eta printzipio demokratikoetan oinarrituta, Europaren mugikortasunaren, enplegarritasunaren, erakargarritasunaren eta lehiakortasunaren mesedetan. Etorbizunari begira onartu beharrean gaude eraldatzen ari den mundu honetan, goi-hezkuntzaren gure sistemak etengabe egokitu beharko direla, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak lehiakortasunari eutsi diezaion eta globalizazioaren erronkei eraginkortasunez erantzuteko moduan egon dadin. Epe laburrean, Boloniako erreformak egiteko zeregina funtsezkoa dela iruditzen zaigu, eta prozesuan parte hartzen duten guztien babes eta konpromiso iraunkorra eskertzen dugu. Lortutako aurrerapenetan lagundu duten lan- eta eztabaidatalddeen ekarpena ere eskertzen dugu. Elkarlanean jarraitzea adostu dugu, elkarri lagunduz eta jardunbide egokien elkartrukea sustatuz.

1.4 Gure goi-mailako hezkuntzaren sistemen bateragarritasuna eta konparagarritasuna handitzeko konpromisoa berresten dugu, haien aniztasuna errespetatzearekin batera. Goi-mailako Hezkuntzaren Erakundeek gure gizartearen garapenerako zeregin garrantzitsua betetzen dutela onartzen dugu, irakaskuntza- eta ikerketa-zentro gisa duten tradizioan, sormenean eta jakintzaren transferentzian oinarrituta, eta gure gizarteak eraikitzeko oinarritzakoak izan diren balioen definizio eta transmisioan ere oinarritzako zeregin bat betetzen dutela uste dugu. Gure helburua da gure Goi-mailako Hezkuntzako Erakundeek beren eginkizun guztiak betetzeko behar dituzten baliabideak dauzkatela bermatzea. Eginkizun horien artean honako hauek daude: ikasleak gizarte demokratiko batean hiritar aktiboak izateko prestatzea; ikasleak etorkizun profesionalerako prestatzea eta garapen pertsonalerako trebatzea, jakintza aurreratuko oinarri zabal bat sortu eta kontserbatzea; eta ikerketa eta berrikuntza sustatzea.

1.5 Askotariko erakunde sendo, autonomo eta arduratsuak behar ditugu, ongi finantzatuak. Diskriminaziorik ezaren eta berdintasunezko sarbidearen printzipioak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparru osoan sustatu eta errespetatu behar dira. Printzipio horiek defendatzeko konpromisoa hartzen dugu, eta ikasle eta langileek ez dutela inolako diskriminaziorik pairatuko bermatzen dugu.

II. Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrurantz egindako aurrerapenak.

Egoeraren balantzeari buruz egin dugun txostenak eta beste zenbait txostenek (EUA Europako Unibertsitateen Elkarteko *Tendencias V*, *Bolonia desde la perspectiva de los estudiantes* del ESIB (Europako Ikasleen Kontseilua), eta Eurydice sarearen *Sobre la estructura de la Educación Superior en Europa*) berresten dutenez, oro har aurrerapen

esanguratsuak izan dira azken bi urte hauetan. Prozesuaren emaitza esanguratsu bat izango litzateke trantsizioak ikasleengan zentratutako goi-mailako hezkuntza ekartzea, eta ez irakasleengan zentratutako hezkuntza bat; uste hori gero eta hedatuago dago gure artean. Eta ikuspegi-aldaketa hori babesten jarraituko dugu.

Mugikortasuna.

2.2 Irakasle, administrazio eta zerbitzuetako langile, ikasle eta tituludunen mugikortasuna Boloniako Prozesuaren funtsezko elementuetako bat da, hazkunde pertsonalerako aukerak sortzeko, pertsona eta erakundeen arteko nazioarteko lankidetzak bultzatzeko, goi-mailako hezkuntza eta ikerketaren kalitatea hobetzeko eta Europako dimentsioa sendotzeko baliagarri izango baita.

2.3 1999. urteaz geroztik aurrerapenak izan dira, baina erronka askori heldu beharrean gaude oraindik ere. Mugikortasunak hainbat oztopo aurkitzen ditu bidean. Besteak beste, immigrazioarekin, titulu eta diplomen aitortzarekin, pizgarri ekonomiko urriekin edo erretiroari buruzko xedapen zorrotzekin zerikusia duten oztopoak. Gobernu bakoitzak bisak eta bizileku- eta lan-baimenak egokitzat jotzen duen moduan emateko duen erantzukizuna onartzen dugu. Neurri horiek goi-mailako hezkuntzako ministroak garen heinean dagozkigun eskumenetatik kanpo kokatzen direnean, gure Gobernuen baitan lan egingo dugu arlo horretan ere aurrerapen erabakigarriak lortzeko. Estatu-mailan lan egingo dugu aitortzarako prozedura eta tresnak abian jartzeko, baita langile zein ikasleen mugikortasunaren sustapenerako mekanismoak aztertzeko ere. Horrek esan nahi du baterako programen kopurua nabarmen igotzea eta ikasketa-plan malguak sortzea, eta, horrez gain, gure erakundeei irakasle, administrazio eta zerbitzuetako langile eta ikasleen mugikortasunaren gainean duten erantzukizuna areago dezatela eskatzea, baita mugikortasun hori Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko herrialdeen artean onartuagoa izan dadila eskatzea ere.

Ikasketen egitura.

2.4 Estatuan eta erakundeetan aurrerapen esanguratsuak egin dira hiru zikloko ikasketa-sistema batean oinarritutako Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparru bat sortzeko helburuari dagokionez. Lehen bi zikloetako ikastaroetan matrikulatutako ikasle kopuruak gora egin du nabarmen, eta zikloen arteko egiturazko oztopoak murriztu dira. Halaber, egituratutako doktorego-programen gorakada nabari da. Nabarmentzekoa da ikasketa-planetan egindako aldaketen garrantzia; izan ere, kualifikazioak lan-merkatuaren premietara egokitu nahi izan dira, baita ondorengo ikasketetara ere. Etorkizunari begira ahalegin berezi bat egin beharko genuke zikloetan sartzeko eta zikloen artean aurrera egiteko indarrean dauden oztopoak ezabatuz, baita ikaskuntzaren emaitzetan eta irakaslearen lan-kargan oinarritutako ECTS kredituak behar bezala inplementatzeko ere. Bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu tituludunen enplegarritasuna hobetzea, eta gai horren gaineko datu-bilketa areagotu beharra.

Aitortza

2.5 Goi-mailako hezkuntzan kualifikazioak, ikasteko eta alde aurretik ikasteko —ikaskuntza informala eta ez-formala barne— aldiak behar bezala aitortzea funtsezkoa da Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan, haren barnean eta testuinguru global batean. Erraz ulertzeko eta konparatzeko moduko titulazioak behar ditugu, beraz, baita hezkuntza-sistemei eta kualifikazio-esparruei buruzko erraz eskuratzeko moduko informazioa ere; alde aurreko betekizunak dira azken batean, herritarren mugikortasuna ahalbidetzeko eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren erakargarritasuna eta lehiakortasuna etengabe bermatzeko. Ildo horretan, pozik bagaude ere Boloniako Prozesuko 38 kidek, Montenegro barne, Europako Kontseiluak/UNESCOk Europako eskualdean goi-mailako hezkuntzaren kualifikazioak aitortzeari buruz ezarritako Konbentzioa (Lisboako Aitortzari buruzko Konbentzioa (LRC) berretsi dutelako, gainerako kideei dei egiten diegu gai horri merezi duen lehentasuna eman diezaioten.

2.6 Aurrerapenak egin dira Aitortzari buruzko Lisboako Konbentzioa abian jartzean, ECTS kredituetan eta tituluaren gehigarrietan, baina tituluak aitortzeko gaiaren inguruan indarrean dauden askotariko ikuspegi nazional eta instituzionalek uniformetasun eta koherentzia

handiagoa eskatzen dute. Ildo horretan, aitortzeko jardunbideak hobetzearren, Boloniako Jarraipen Taldeari (*Bologna Follow Up Group*, BFUG) eskatu diogu ENIC/NARIC sareei baimena eman diezaiela plan nazionalak aztertzeko eta jardunbide egokiak zabaltzeko aukera izan dezaten.

Kualifikazio-esparruak.

2.7 Kualifikazio-esparruak funtsezko tresnak dira Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren barruan konparagarritasuna eta gardentasuna lortzeko, baita goi-mailako hezkuntzaren sistemen barruan eta artean ikasleen mugimendua errazteko ere. Esparru horiek lagungarri izan beharko lukete, halaber, goi-mailako hezkuntzaren erakundeek ikaskuntzaren emaitzetan eta kredituetan oinarritutako ikasketa-programak eta moduluak gara ditzaten eta kualifikazioen aitortza eta aurreko ikaskuntza mota guztien aitortza hobe dezaten.

2.8 Ikusi ahal izan dugunez, hasiera batean aurrerapen batzuk izan dira kualifikazioen esparru nazionalak abian jarri direlako, baina askoz ere ahalegin handiago bat egin behar dugu arlo horretan. , Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko eredu globalak egiaztatutako kualifikazio-esparru nazional horiek 2010. urtean bete-betean martxan jartzeko konpromisoa hartzen dugu. Onartzen dugu desafio baten aurrean gaudela, eta Europako Kontseiluari laguntza eskatzen diogu kualifikazioen esparru nazionalak egitean sortzen diren esperientziak partekatzeko. Azpimarratzen dugu kualifikazioen esparruak diseinatu beharko liritekeela ikasle eta irakasleen mugikortasuna areagotzeko eta enplegarritasuna hobetzeko.

2.9 Pozik gaude, halaber, kualifikazioen esparru nazional horiek, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko eredu globalarekin bateragarri direnak, bateragarri izango direlako ere Europako Batzordeak bizitza osoko ikaskuntzarako Kualifikazioen Europako Esparruari buruz egin duen proposamenarekin.

2.10 Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko Kualifikazioen Esparruaren eredu globala Bergenen onartu zen, eta guretzat funtsezkoa da Europako goi-mailako hezkuntza testuinguru global batean sustatzeko.

Bizitza osoko ikaskuntza.

2.11 Egoeraren balantzeari buruzko txostenak erakusten du herrialde gehienetan ikaskuntza malguko elementuak daudela, baina beharrezkoa da ikaskuntza-ibilbide malguagoak sistematikoki garatzea, ikaskuntza iraunkorra lehenagotik babesteko. Hortaz, Boloniako Jarraipen Batzordeari eskatzen diogu jardunbide egokien elkartrukea areagotu dezala, eta goi-mailako hezkuntzak bizitza osoko prestakuntzan betetzen duen zeregina hobeto uler dadin lan egin dezala. Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko oso herrialde gutxitan esan daiteke kredituetan sartzeko eta kredituak lortzeko alde aurreko ikaskuntzen aitortza ongi garatua dagoela. ENIC/NARIC sareekin elkarlanean, Boloniako Jarraipen Taldeari eskatzen diogu proposamen batzuk egin ditzala goi-mailako hezkuntzaren barruko alde aurreko ikaskuntzaren aitortza hobetzeko.

Kalitatea ziurtatzea eta Kalitatezko Agentzien Europako Erregistroa.

2.12 Bergenen ezarritako Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko Kalitatea Ziurtatzeko Irizpide eta Jarraibideak (ESG) aldaketa dinamizatzeko elementu boteretsua dira kalitatea bermatzeko arloan. Herrialde guztietan hasi dira irizpide eta jarraibide horiek martxan jartzen, eta batzuek kontuan hartzeko moduko aurrerapenak egin dituzte dagoeneko. Zehazki, kalitatearen kanpo-ziurtatzea askoz ere gehiago garatu da. 2005etik ikasleen parte-hartzeak gora egin du maila guztietan, baina oraindik ere pixka bat hobera egin behar du. Kalitatearen gaineko erantzule nagusiak goi-mailako hezkuntzako erakundeak direnez, erakunde horiek lanean jarraitu beharko lukete kalitatea hobetzeko sistemak indartzeko lanean. Onartzen dugu aurrerapenak egin direla egiaztapena elkarri aitortzeari eta kalitatea hobetzeko erabakiei dagokienez, eta dei bat egiten dugu kalitatea ziurtatzeko agentzien arteko nazioarteko lankidetzak jarraipena izan dezan.

2.13 2006an EUAk, ENQAk, EURASHEk eta ESIBek (E4 Taldea) Kalitatea Ziurtatzeko Europako lehen Foroa antolatu zuten elkarlanean, kalitatea ziurtatzearen arloan Europan egindako hobekuntzak aztertzeko. Lau erakunde horiei dei egiten diegu urtean behin Foro

horiek antolatzen jarrai dezaten, jardunbide egokiak partekatzen eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan kalitatea etengabe hobetzen laguntzeko.

2.14 E4 Taldeari eskertzen diogu Goi-mailako Hezkuntzaren Kalitatea Ziurtatzeko Agentzien Europako Erregistroa ezartzeko behar diren xehetasunak aztertzeke gure eskaerari erantzun bat eman izana. Erregistro horren helburua da inplikatu guztiei eta publikoari oro har informazio objektiboa askatasunez eskuratzeko aukera ematea, ESG ereduaren jarraibideei jarraikiz diharduten konfiantzazko kalitate-agentzien inguruan. Horrek goi-mailako hezkuntzaren esparruarekiko konfiantza indartuko du, bai Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan, bai beste eskualde batzuetan ere, eta kalitatezko ziurtagiriak eta egiaztatzeke erabakiak elkarri aitortzeke bidea erraztuko du. Poz handiz hartu dugu E4 Taldeak erregistroa ezarri izana lankidetzan jardunez, proposatutako eredu eragilean oinarrituta. Erregistroak borondatezkoa behar du, ekonomikoki autosufizientea, independentea eta gardena. Erregistroan sartzeko eskaerak ebaluatu behar dira ezarritako ESG Irizpide eta Jarraibideak funtsean betetzen dituzten edo ez ebazteke, agintari nazionalak onartutako azterketa-prozesu independente baten bitartez, agintari horiek onarpen hori eskatzen duten tokietan. E4 Taldeari eskatzen diogu aldian-aldian aurrerapenen berri eman diezagula Boloniako Jarraipen Batzordearen bitartez, eta bi urteko epean indarrean dagoenez geroztik erregistroari kanpo-ebaluazio bat egin diezaiotela, interesdun guztien ikuspegiak kontuan hartuz.

Doktoregaiak.

2.15 Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua eta Europako Ikerketa Eremua elkarrengana hurbiltzeak garrantzizko helburu bat izaten jarraitzen du. Onartzen dugu balio handia duela askotariko doktorego-programak garatu eta mantentzeak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko kualifikazioen esparruko eredu globalari loturik, gehiegizko erregulazioa saihestearekin batera. Aldi berean uste dugu hirugarren zikloari buruzko araudia indartzea eta ibilbidea hasi berritan dauden ikertzaileen estatusa, aukera profesionalak eta finantzaketa hobetzea ezinbesteko betekizunak direla ikertzeke ahalmena indartzeko eta Europako goi-mailako hezkuntzaren kalitatea eta lehiakortasuna indartzeko Europako helburuak lortzearren.

2.16 Hortaz, goi-hezkuntzako gure erakundeei dei egiten diegu are gehiago ahalegin daitezela doktorego-programak beren politika eta estrategia instituzionaletan integratzeko, ibilbide profesional egokiak garatzeko eta beren doktoregai eta ikertzaile berriei aukerak eskaintzeko.

2.17 Europako Unibertsitateen Elkarteari dei egiten diogu goi-mailako hezkuntzako erakundeen arteko esperientzia-elkartrukea bultzatzen jarrai dezan, Europa osoan sortzen ari diren doktorego-programa berritzaileekin hasi eta funtsezko beste hainbat gaitaraino, hala nola sartzeko betekizunak, ikuskatu eta ebaluatzeko prozesu gardenak, trebetasun transferigarrien garapena eta laneratzea hobetzeko metodoak. Gure Gobernuen artean eta ikerketa finantzatzen duten beste hainbat erakunderen artean finantzaketari eta beste hainbat gairi buruzko informazioaren elkartrukea areagotzeko aukerak bilatuko ditugu.

Dimentsio soziala.

2.18 Goi-mailako hezkuntzak funtsezko zeregin bat bete beharko luke kohesio soziala sustatzean, desparekotasunak murriztean, eta, gizartearen barruan, ezagutza, trebetasun eta gaitasunen maila igotzean. Goi-mailako hezkuntzaren politikek pertsonen ahalmena maximizatzea eduki beharko lukete jomugan, pertsonen garapen personalari dagokionez, eta jakintzan oinarritutako gizarte jasangarri eta demokratiko bati ekarpenak egin behar dizkiotela aintzat hartuta. Goi-mailako hezkuntzaren maila guztietan sartzen, parte hartzen eta ikasketak amaitzen dituzten ikasle guztiek gure herrien aniztasunaren isla izan beharko luketela uste dugu; gizartearen asmo horrekin bat egiten dugu. Berretsi nahi dugu oso garrantzitsua dela ikasleek ikasketak amaitzeko aukera izatea beren egoera sozioekonomikoarekin lotutako oztoporik gabe. Horrenbestez ahaleginean jarraituko dugu ikasleei zerbitzu egokiak eskaintzeko, ikasteko ibilbide malguagoak sortzeko —nola goi-mailako hezkuntzan sartzeko, hala, behin barruan egonik, aurrera jarraitzeko— eta maila guztietan parte-hartzea zabaltzeko aukera-berdintasunaren oinarriaren gainean.

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua testuinguru global batean.

2.19 Atsegin handiz ikusten dugu munduko hainbat tokitan Boloniako erreformek kontuan hartzeko moduko interesa piztu dutela, eta, ildo horretatik, askotariko gai buruzko eztabaida sustatu dutela europarren eta nazioarteko kideen artean. Gai horien artean dauzkagu, besteak beste, kualifikazioen aitortza eta lankidetzaren onurak, alderdien arteko berdintasunean, elkarrekiko konfiantzan, elkar ulertzean eta Boloniako Prozesuaren funtsezko balioetan oinarrituta. Bestetik, onartzen dugu munduko beste eskualde batzuetako zenbait herrialdek ahaleginak egin dituztela beren goi-mailako hezkuntzako sistema Boloniako esparru orokorraren printzipioetara hurbiltzeko.

2.20 “Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua eszenatoki globala da” estrategia oinarritzat hartuta jardungo dugu funtsezko arloen garapenean: Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruari buruzko informazioa hobetzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren erakargarritasuna eta lehiakortasuna sustatzea, alderdien berdintasunean oinarritutako lankidetzaren indartzea, garatu beharreko politiken gaineko elkarriketa areagotzea, eta kualifikazioak aitortzeko sistema hobetzea. Estrategia hori aintzat hartu beharko litzateke UNESCOk eta ELGEk garatutako *Guías para promover la calidad en la educación superior por encima de las fronteras* gidei dagokienez.

III. 2009rako lehentasunak

3.1 Datozen bi urteetarako adostu dugu onartutako Ekintza Ildoak amaitzeko lanetan zentratzea, hiru zikloko gradu-sistemaren lehentasun iraunkorrak, kalitate-bermea eta tituluak eta ikasteko beste aldi batzuk aitortzea barne. Honako ekintza-arlo hauetan zentratuko gara bereziki.

Mugikortasuna.

3.2 2009an prestatuko diren txosten nazionaletan, herrialde bakoitzean ikasle eta langileen mugikortasuna sustatzeko hartutako neurriak bildu beharko dira, baita mugikortasun hori etorkizunean ebaluatzeko ekintzak ere. Herrialde bakoitzaren erronka nagusietan zentratuko gara, 2.3 paragrafoan aipatutakoaren arabera. Adostu dugu, halaber, aditu nazionalen sare bat sortzea, informazioa partekatzeko eta beka eta laguntzen “eramangarritasunaren” aurka doazen oztupoak identifikatzen eta gainditzen laguntzeko.

Dimentsio soziala.

3.3 Halaber, dimentsio sozialerako estrategia eta politika nazionalen inguruko informazioa bilduko da txostenetan, haien efikazia ebaluatzeko ekintza eta neurriak barne. Inplikatu guztiei dei egiten diegu parte har dezatela eta zeregin horiek herrialdez herrialde bultzatzea.

Datu-bilketa.

3.4 Onartzen dugu datuen eskuragarritasuna hobetu beharra dagoela, bai mugikortasunari bai dimentsio sozialari buruzko datuei dagokienez, Boloniako prozesuan parte hartzen duten herrialde guztietan. Hortaz, Europako Batzordeari (*Eurostat*) eta *Eurostudent* proiektuko arduradunei eskatzen diegu datu eta adierazle konparagarri eta egiaztatuak ezar ditzatela Boloniako herrialde guztietan dimentsio sozialaren eta mugikortasunaren helburu globalak lortzeko bidean egindako aurrerapenak neurtu ahal izateko. Goi-mailako hezkuntzan parte hartzeko berdintasuna eta tituludunen enplegarritasuna bildu beharko lirateke datu horietan. Zeregin hori Boloniako Jarraipen Taldearekin elkarlanean egin beharko litzateke, 2009ko ministroen goi-bileran horri buruzko txosten bat aurkeztu ahal izateko.

Enplegarritasuna.

3.5 Hiru zikloko ikasketa-sistema sartzearen osagarri, Boloniako Jarraipen Taldeari eskatzen diegu hiru zikloetako bakoitzean eta bizitza osoko ikaskuntzaren testuinguruan enplegarritasuna handitzeko zer egin litekeen zehatz-mehatz azter dezala.

Horretarako, interesdun guztiak arduraz inplikatzeari beharko litzateke. Gobernuak eta goi-mailako hezkuntzaren erakundeek gehiago komunikatu beharko dute enplegu-emaileekin eta gainerako inplikatu guztiekin, beren erreformetarako funtsezko oinarria osatzen duten heinean. Gure eskumenen neurrian jardungo dugu gure gobernuetan, funtzio publikoan enpleguak eta karrera profesionala titulazioen sistema berriarekin guztiz bateragarriak izan daitezten. Erakundeei dei egiten diegu harremanak estu ditzatela eta enplegu-emaileekin elkarlanean jardun dezatela ikasketak berritzeko prozesuan, ikaskuntzaren emaitzetan oinarrituta.

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua testuinguru global batean.

3.6 Boloniako Jarraipen Batzordeari eskatzen diogu 2009an informazioa eman diezagula Europan, estatuan eta erakundeetan gai horietan izandako aurrerapen globalen inguruan. Inplikatu guztiak zeregin bat betetzen dute gai horietan, beren erantzukizunen arabera. Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrurako estrategia testuinguru global batean nola ezartzen ari den informatzean, Boloniako Jarraipen Taldeak bi lehentasun espezifiko hartu beharko ditu kontuan. Lehenik eta behin, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruari buruz eskuragarri dugun informazioa hobetzea, Boloniako Idazkaritzaren webgunea eta Europako Unibertsitateen Elkartearen Boloniako Eskuliburua perfektionatu, eta, horrez gain, kualifikazioen aitortza hobetuz. Goi-mailako hezkuntzaren erakundeei, ENIC/NARIC zentroeiei eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren barruan kualifikazioen aitortzan eskumena duten beste agintariei dei egiten diegu munduko beste eremu batzuetako kualifikazioak aintzat hartzeko, gainerako munduan Europako kualifikazioak balioetsiko balituzte jaso nahiko luketen begirada zabalarekin, aitortza hori LRC konbentzioaren printzipioetan oinarrituta.

Balantzea.

3.7 Boloniako Jarraipen Taldeari eskatzen diogu balantze-prozesuarekin aurrera jarrai dezan txosten nazionaletan oinarrituta, 2009ko Ministroen Goi-bilerarako prest egon dadin. Azterketa kualitatiboa gehiago garatzea espero dugu, bereziki mugikortasunari, Boloniako Prozesuak testuinguru global batean duen tokia eta alderdi sozialei dagokienez. Balantze-prozesuan bildutako gaien artean bildu behar dira, orain artean bezala, titulazioen sistema eta tituludunen enplegarritasuna, titulazioen eta ikasteko aldien aitortza, eta ESG jarraibideen arabera kalitatea bermatzen duten alderdi guztiak egikaritzea, besteak beste. Ikaskuntza zentratutako eta ikaskuntza-emaitzetan oinarritutako ikaskuntza baten ikuspegiari jarraikiz, arretagune berriak kualifikazioen esparru nazionaletan kokatu behar dira bete-betean, baita ikaskuntzaren kreditu eta emaitzetan, bizitza osoko prestakuntzan eta goi-mailako hezkuntzaren aurreko prestakuntzaren aitortzan ere.

IV. 2010era eta hortik aurrera begira

4.1 Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak garatzen jarraitzen du, globalizazioaren erronka guztiei erantzunez, eta aldi berean ikusten dugu 2010. urteaz geroztik ere herrialde kide guztien arteko lankidetzaren behar-beharrezkoa izango dela.

4.2 2010. urtea bete-betean aprobetxatzeko erabaki sendoa hartu dugu, Boloniako Prozesutik Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura pasatzea markatuko duen urtea izango delako, eta, horrenbestez, aukera ezin hobea delako goi-mailako hezkuntzaren alde hartu dugun konpromisoa berresteko, gure gizarteak maila nazionaletan zein Europan jasagarriak izan daitezela lortzeko funtsezko elementua den heinean. 2010 aukera bat izango da beraz, zehazkiago, 1999an Boloniako Prozesua abian jartzea ekarri zuen ikuspegi berdefinitzeko aukera bat, eta espero dugu Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Estrategia beste balio eta ikuspegi batzuek ere indartuko dela, egiturarekin eta tresnekin zerikusia duten gaitetatik haratago. 2010. urteak eskaintzen digun aukera baliatu nahi dugu gure goi-mailako hezkuntzaren sistemak berregokitzeko, norabide berri bat emanez berehalako gaitetatik haratago behatzeko moduan, sistema horiek gure etorkizuneko erronkei aurre egiteko prestatuz.

4.3 Boloniako Jarraipen Taldeari eskatzen diogu Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua 2010az geroztik nola bilaka litekeen azter dezatela, eta 2009an egingo den Ministroen Goi-bileran dagokion informazioa eman diezagun. Laguntza-egitura egokiei

buruzko proposamenak bildu behar dira txosten horretan, kontuan hartuta egungo lankidetzak-akordio ez-formalak ongi funtzionatzen ari direla, eta aurrekaririk gabeko aldaketetara hurbildu gaituztela.

4.4 Aurreko balantzeen —*Tendencias* eta *Bolonia desde la perspectiva de los estudiantes* txostenak— oinarriaren gainean, Boloniako Jarraipen Taldeari dei egiten diogu 2010erako txosten baten prestakuntza kontuan har dezan balioespen independente bat barne, kide aholku-emaileekin elkarlanean, Boloniako prozesuak 1999tik EEE ezartzeko bidean egindako aurrerapen globalak ebalua ditzan.

4.5 Boloniako Jarraipen Taldearen esku uzten dugu 2010eko Ministroen Goi-bileraren izaerari, edukiari eta tokiari buruzko erabakia, eta erabaki hori 2008ko lehen erdian hartu beharko da.

4.6 Gure hurrengo topaketa Beneluxeko herrialdeetan antolatuko da, zehazkiago, Leuven/Louvain-la-Neuve hirian, 2009ko apirilaren 28an eta 29an.